



EBANJELIOA: BEHAR DUGUN BERRIA

“Espiritu Santuaz bataiatuko zaituzte”

2021eko abenduaren 12a
Abenduko 3. igandea (C)

Lukas 3, 10-18.

Jendeak galdetzen zion Joani: -Zer egin behar dugu, bada?

Hark erantzuten zien: -Bi soineko dituenak eman diezaiola bat jantzirik ez duenari, eta jatekoa duenak ere bana dezala.

Joan ziren zergalari batzuk ere bataiatzera eta galdetu zioten: -Maisu, zer egin behar dugu?

Hark erantzun zien: -Ez kendu inori legezko dena baino gehiago.

Soldaduek ere galdetu zioten: -Eta guk, zer egin behar dugu?

Joanek erantzun zien: -Ez atera inori dirurik gogorkeriaz, ez eta gezurrezko salakuntzaz ere; konforma zaitetze daukazuen soldatarekin.

Herria zain-zain zegoen eta denak ari ziren pentsatzen Joan ez ote zen Mesias izango. Joanek, ordea, denen aurrean esan zuen: “Nik urez bataiatzen zaituztet, baina badator ni baino ahaltsuago dena, eta ni ez naiz inor haren oinetakoen lokarriak askatzeko ere; horrek Espiritu Santuaz eta suz bataiatuko zaituzte. Eskuan du sardea garia garbitu eta alea bere mandioan jasotzeko; lastoa, berriz, inoiz itzaliko ez den sutan erreko du”.

Honela eta beste burubide askoren bidez adierazten zion berriona herriari.

Zer egin behar dugu, bada? Hark erantzuten zien:

Bi soineko dituenak eman diezaiola bat jantzirik ez duenari, eta jatekoa duenak ere bana dezala.

PARTEKATU EZ DUENAREKIN

Jose Antonio Pagola

Joan Bataiatzaileak basamortutik oihu egindako hitzak bihotza ukitu zion jendeari. Bihozberritzeko eta Jainkoari leialago izateko haren deiak askori eginarazi zion galdera: Zer egin behar dugu? Gizakiaren baitan beti harrotzen den galdera da hori, errotiko dei bat entzun eta geure erantzuna nola zehaztu ez dakigunean.

Bataiatzaileak ez die proposatu erritu erlijiosorik, ezta araurik eta manamendurik ere. Kontua ez da, berez, gauzak egitea, ezta eginbeharrak baitaratzea ere, baizik beste era batekoa izatea, beste era gizatarrago batean bizitzea, dagoeneko geure bihotzean dugun hau garatzea: bizitza zuzenagoa, duinagoa, haurride-izaerakoagoa.

Gauzarik erabakitzaileena eta zinezkoena geure bihotza Jainkoari irekitzea da, sufritzen ari direnen premiei adi-adi begiratu. Bataiatzaileak xumetasunez eta egiaz aparta den formula honetan bildu du erantzuna: «*Soingaineko bi dituenak partekatu ditzala ezer ez duenarekin, eta jatekoa duenak gauza bera*». Ezin esan era sinpleagoan eta argiagoan.

Zer esan genezake hitz hauetaz, munduan gizadiaren hirutik bat baino gehiago miserian eta biziari nola eutsiko egonik, geure armairuak mota guztietako arropaz eta geure hozkailuak janariz beteak ditugunok?

Eta zer esan genezake kristauek hain laua eta gizatarra diren hitz horien aurrean? Ez ote dugu geure bihotzeko begiak irekitzen hasi beharra; hain zuzen ere, gizatarrago izatea eragozten digun ongizateak mendean gauzkanongan sentiberatasun-falta horren eta esklabotza horren kontzientzia biziagoa eragiteko?

Kezkaturik bizi gara, eta arrazoi osoz, kristautasunaren momentu honetako puntu askotaz; aldi berean, ordea, ez gara jabetzen «erlijio burges batek atxiloturik» gauzkala. Ez du ematen kristautasunak, bizi dugun eran, indarririk duenik ongizatearen gizartea eraldatzeko. Aitzitik, azken hau da Jesusen erlijioak duen alderik onena desitxuratzen ari dena: Kristorekiko gure jarraipena kimatzen ari da hura jatorrenak eta finenak diren balio hauek erazuziz: solidaritatea, pobreen defentsa, errukia, zuzentasuna.

Horregatik, askoz gehiago baloratu beharko genuke «gatibutasun» honen aurka matxinatzen den hainbat eta hainbat jenderen ahalegina; solidaritate-keinu zehatzez eta biziera lauagoa, soilagoa eta gizatarragoa landuz konprometitzen den jendearena.